



EBAZPENA, 2008KO URTARRILAREN 24KOA, HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILEKO LANGILERIA KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA. HONEN BIDEZ, DEI EGITEN DA HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN ORIENTATZAILE-LANPOSTUAK ZERBITZU-EGINKIZUNETAN BETETZEKO.

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen duen hitzarmena onartzen duen urriaren 28ko 182/2007 Dekretuaren 28. artikulua (ezartzen duenez, "Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak orientatzaile ibiltari izendatuko dira Helduen Hezkuntzako ikastetxeetarako").

Lanpostuak betetzeko aparteko eratzat taxutu da zerbitzu-eginkizuna. Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, azaroaren 7ko 16/1997 Legearen bidez aldatuak, 54. artikuluan arautzen du hori eta, osagarri gisa, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuak ere bai, Araudi Orokorra onartzen baitu Langileak Estatuko Administrazio Orokorren zerbitzura sartzea eta Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionario zibilen lanpostuak betetzea eta lanbide-igoera erregulatzeko.

Ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Egitura organikoa ezarri duen urriaren 16eko 222/2001 Dekretuaren 10. artikulua xedatutakoa kontuan izanik, honako hau

EBATZI DUT:

Lehengoa.- Deialdi honen xedea da zerbitzu-eginkizunetan betetzea Helduen Hezkuntzako ikastetxe hauetako lanpostu:

ZENTROAK	LAGUNTZEN DITUZTEN ZENTROAK	HIZKUNTZA ESKAKIZUNA
Paulo Freire HHI	Paulo Freire HHI,	1HE-DG
Ntra. Sra. del Carmen HHI	Ntra. Sra. del Carmen HHI, LLodio HHI	2HE-B
Barakaldo (Bizkaia) HHI	Barakaldo HHI, Sestao HHI	1HE-B
Basauri (Bizkaia) HHI	Basauri HHI	1HE-B
Irala (Bizkaia) HHI	Irala HHI, Iturribide HHI	1HE-B
Durango (Bizkaia) HHI	Durango HHI, Galdakao HHI	2HE-B
Gernika-Lumo (Bizkaia) HHI	Gernika-Lumo HHI, Bermeo HHI	2HE-B
Leioa (Bizkaia) HHI	Leioa HHI	1HE-B
Portugalete (Bizkaia) HHI	Portugalete HHI, Santurtzi HHI	1HE-DG
Valle de Trapaga (Bizkaia) HHI	Valle de Trapaga HHI, Zalla HHI	2HE-B
I. Zuloaga (Gipuzkoa) HHI	I. Zuloaga HHI, Herrera HHI	1HE-B
Bergara (Gipuzkoa) HHI	Bergara HHI, Eibar HHI, Arrasate HHI	2HE-B
Oarsoaldea (Gipuzkoa) HHI	Oarsoaldea HHI, Irán HHI	2HE-B
Lasarte (Gipuzkoa) HHI	Lasarte HHI, Zarautz HHI.	2HE-B
Tolosa (Gipuzkoa) HHI	Tolosa HHI, Hernán HHI	2HE-B
Beasain (Gipuzkoa) HHI	CEPA Beasain, CEPA Urretxu	2HE-B

Bigarrena.- Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen kidegoko Psikologia eta Pedagogiako espezialitateko karrerako funtzionarioek eta bitasrteko funtzionarioek. Edozelan ere, karrerako funtzionarioek lehentasuna izango dute.



Era berean, berritzeguneetako aholkulariek ere parte hartu ahal izango dute, Aniztasuneko Programakoak badira eta orientazio-gaietan aholkulari dihardutela egiazatzen badute.

Deialdi honetan hautatua izateko, derrigorrezko baldintza izango da Hezkuntza Berriztatze zuzendariak 2008ko urtarrilaren 24an emandako ebazpenaren bitartez deitutako prestakuntza-ikastaroa gaindituta izatea.

Hirugarrena.- Deialdi honetan parte hartu nahi dutenek eskabide bat (II. eranskina) aurkeztu beharko dute, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileria Kudeatzeko zuzendariari bidali. Eskabide horiekin batera eskatutako baldintzak eta alegatutako merituak egiaztatzen dituzten dokumentazioa aurkeztu beharko da Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetan edo azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako erregistroetakoren batean (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua). Aurkezteko epea 2008ko otsailaren 5ean amaituko da, azken egun hori barne dela.

Laugarrena.- Hautagaiak puntuatzeko I. eranskinean argitaratutako baremoa erabiliko da eta honako kide hauek osatutako batzordea eratuko da:

- Lanbide Heziketako zuzendaria edo hura eskuordetzan duena.
- Ikastetxeen Zuzendaritzako burua edo hura eskuordetzen duen pertsona bat.
- Hezkuntza Berriztatze zuzendaria edo hura eskuordetzen duen pertsona bat.
- Langileria Kudeatzeko Zuzendaritzako funtzionario bat. Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzako funtzionario bat, idazkari arituko dena.

Era berean, sektorean ordezkapen nahikoa duen sindikatu bakoitzeko ordezkari bana izango da batzordean. .

Bosgarrena.- Eskabidean ageri ez den merezimendurik ez da baloratuko. Eskabidean ageri direnak baloratzeko, halaber, behar bezala egiaztatu beharko dira.

Seigarrena.- Puntuazioaren guztizkoan berdinketarik gertatuz gero, honela ebatziko da, hurrenez hurren: baremoaren atal bakoitzeko puntuazio altuenari begiratzuz, atalak baremoan duten hurrenkera kontuan hartuz.

Zazpigarrena.- Langileriaren Kudeaketa zuzendariak ebatziko du zerbitzu-eginkizuna, aipatutako batzordeak proposamena egin ondoren.

Ebazpen horren aurka, gorako errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratzen denetik aurrera.

Zortzigarrena.- Hautatutako karrerako funtzionarioei adierazitako lanpostuen zerbitzu-eginkizunak emango zaizkie 2008/2009ko ikasturtea amaitu arte. Era berean, hautatuen artean bitarteko funtzionarioirik izanez gero, lanpostu horretarako izendapena egingo zaio, 2008/2009 ikasturtea amaitu arte.

Aldi hori igarota, hezkuntza-administrazioak balorazio positiboa ematen badio egindako lanari, Langileria Kudeatzeko zuzendariak zerbitzu-eginkizuna luzatu ahal izango du.



Bederatzigarrena.- Izangaiak lanpostu horietara iristen badira, dagokien kidegoko lanpostuei dagozkien lansariak mantenduko dituzte.

Hamaikagarrena.- Ebazpen honek araupetzen ez duenari dagokionez, prozedura mailako aplikazio osagarri gisa Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua, erabiliko da.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urtarrilaren 24a.

LANGILERIA KUDEATZEKO ZUZENDARIA

Itziar GARAIZAR AGIRRE



I. ERANSKINA BAREMOA:

Gehienezko puntuazioa: 14 puntu

1. Merezimendu akademikoak: gehienez 3 puntu
2. Lanbide-esperientzia gehienez 5,5 puntu
3. Prestakuntza: gehienez 4 puntu.
4. Argitalpenak 1.5 puntu

1.- Ikasketa-merituak (lanpostuarekin lotuak eta baldintzatzat eskatu gabekoak).

1. zikloko titulazioa: 0,50 puntu
2. zikloko tituluzioa: puntu 1.
3. zikloko titulazioa: 1. 50 puntu

2.- Lan-esperientzia

Irakasle-lana HHn: 0,25 puntu urteko. 1,5 puntura arte, gehienez.

Orientatzaile-lana irakaskuntzari laguntzeko zerbitzuetan: 0,50 puntu urteko. 4 puntura arte, gehienez.

3.- Prestakuntza (lanpostuaren jardute-eremuari lotua)

Jasotako prestakuntza: gehienez puntu 1. Ikastaroak kontuan hartzeko, gutxienez, 10 ordukoak izango dira, eta ikastaroko 0,10 puntu emango dira.

Emandako prestakuntza: gehienez puntu 3. 0,01 puntu emango dira ikastaroko edo emandako hitzaldiko.

4.- Argitalpenak (ISBN dutenak): gehienez ere 1, 5 puntu.

Ondoko argitalpenak baloratuko dira: eskatzen den postuaren lan-eremuari dagozkionak. Honela baloratuko dira:

- artikulak: 0'25puntu
- egile bakarreko liburuak, softwarea edo bideoak: 0,75 puntu.

- zenbait egile dituzten liburuak, softwarea edo bideoak: 0,25 puntu.

II. ERANSKINA.

PARTE HARTZEKO ESKABIDEA

ESKATZAILEAREN DATUAK

ABIZENAK:.....
IZENA:.....
NAN zk.:
IKASTETXEA.....

JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA

KALEA.....Nº.....
HERRIA
POSTA-KODEA
TELEFONOA

ESKATUTAKO PLAZAK, LEHENTASUNAREN ARABERA

--

.....(e)n, 2008ko(a)ren ... a.
INTERESDUNAREN SINADURA



**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA**
Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordetza
Langileriaren Kudeaketa zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**
Viceconsejería de Administración y Servicios
Dirección de Gestión de Personal